

Literaturzaleen saria jasoko du Kirmen Uribe idazleak, Basteron

111 Akademia Saria jasoko du Kirmen Uribe, maiatzaren 11n Basteron.

Irakurleek hala erabakita, Kirmen Uribe jasoko du 2016ko 111 Akademia Saria 'Elkarrekin esnatzeko ordua' eleberriagatik. Maiatzaren 11n emango diote saria Ondarroako idazleari Andoaingo Bastero kulturgunean, arratsaldeko 19:30ean hasiko den eta herritar guztientzat irekia izango den ekitaldian. Irakurleek liburu sarituko hainbat pasarte irakurriko dituzte, Audience talde gernikarraren musika lagun dutela.

IKUS-ENTZUNEZKOA MAIATZAREN 9AN

Kirmen Uribera buruzko 'Gutariko azkena' dokumentala



Kirmen Uribe idazlea Andoainera dator maiatzaren 11n, 111 Akademia Saria jasotzera.

eskainiko du 111 Akademiak Basteron bertan 19:00etan. Sarrera doakoa izango da. Josu Venerok zuzendu eta Sig-nodigital etxeak ekoiztitako

lan honek Uriberen sorkuntza-prozesua eta nazioarteko beste artista batzuekin duen harremana ditu hizpide. Euskararen barrena egindako

bidaia poetiko eta bisuala da, eta hizkuntza gutxiak abiapuntutzat hartuta, artista belaunaldi berrien lan egiteko eta munduarekin erlazionatzeko moduren berri ematen du.

Venerok eta Kirmen Uribe berak landutako gidoia du dokumentalak, Euskal Herrian, Estatu Batuetan, Japonian, Txinan eta Belgikan grabatua izan da eta nazioarteko hainbat artistaren partaidetza du, besteak beste, Elizabeth Macclin idazlearena, Saly Perret Salisbury Unibertsitateko literatura irakaslearena, Su Tong idazlearena, Carmen Mussche Robert Musscheren alabarena, Wim Mertens musikariarena, Keijiro Suga idazlearena, Nami Kaneko itzultzailearena, eta Bingen Mendizabal eta Mikel Urdangarin musikariarena.

Egaperen afarirako deialdia



Ekainaren 2an 50. urteurrenoko afaria egingo dute Oianumen. Izena eman beharra dago maiatzaren 17a baino lehen.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Santa Krutz jaietako irudiak

Sei eguneko ospakizunak amaitu dira, eta Aiurri.eus webgunean bideoak eta argazkiak ikusgai daude. Aiurri astekarian, hainbat argazki eta albiste.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Zanpatuz ttiki eguna

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

‘Pentagrama-Enea’ antzezlanaren Saroben

Igande honetan Urnietako Udal antzerki tailerraren antzezlanaren, 17:30ean hasita.

Udal antzerki tailerreko kideak antzerkiaren alor ezberdinetan hezi eta trebatzen diren bitartean, antzezlanak prestatu eta antzeztzen aritzen dira. Gauzak horrela,

igande honetan Antton Jauregi Egape ikastolako irakasleak bere garaian asmatu zuen musika metodoa oinarritzat harturik ‘Pentagrama-Enea’ antzez-

lan eskainiko dute, igande arratsaldean. Sarrerak dagoeneko salgai daude, eta egunean bertan Sarobeko leihatilan.

[URNIETA, 5. ORRIALDEA]

111AKADEMIA:REN
SARIA 2016

Idazle saritua:
Kirmen Uribe



**Maiatzaren 11n, ostegunarekin
arratsaldeko 19:30etan**

**Elkarrekin esnatzeko ordua
eleberriagatik**

Andoaingo Bastero Kulturgunean.
EKITALDI IREKIA.



JUANITO ALBIZU ETA MIREN ARRIETA JOANITO TABERNAKO NAGUSIAK

Joanito taberna, Urnietako historiaren lekuko

Itxita egonagatik, taberna izandakoak bere horretan jarraitzen du, eta oraindik irekita egon zen urteen kutsua arnastu liteke bertan. Paretetan zintzilik dirauten koadroek herriaren XX. mendeko azken

hamarkaden historia jasotzen dute. Tabernan bertan elkartu gara Juanito eta Mirenekin, eta kuadroz-kuadro joan gara beraien bizipenak aletzen.

Juanito Albizu 1947ko otsailaren 7an jaio zen Urnietan; **Miren Arrieta**, 1953ko uztailaren 28an Hernanin. 1976an ezkondu ziren. San Migel parrokiaren ondoan kokatuta zegoen "Juanito taberna"ren arduradunak izan ziren. Taberna, gertuan zegoen Eulania tabernaren eraikina kalea zabaltzeko eraitsi zutenean ireki zuten, eta 2007an itxi.

KARAKOLAK

Juanito tabernaren bezeroak, gehien bat, herrikoak ziren, baina afaltzera inguruko herrietako jendea ere hurbiltzen zen. Garai batean, bertan prestatzen zituzten karakolak izugarritzako ospea izan baitzuten. Juanitoren amak (**Ixabel Intxausti**) oso ondo prestatzen zituen, eta beraiek eman zioten jarraipena Ixabelen errezerari. Bazuten jendea beraientzako karakolak biltzen zituena eta izan zituzten 5.000 karakol prestatutako gauak ere.

HAMAIKETAKOAK

Hiletak goizez egiten ziren garaian, oso ohikoa zen bertan gosaria egitea salda, txorizoa eta abar janez. Tabernaren azken urteetan eta igandetako meza nagusiaren ondoren, asko ziren bertara hamaiketako eta tertulia egitera hurbiltzen zirenak. Tartean izaten zen **Iñaki Aranzadi** apaiza ere.

XABIER LETE

Hasieran lagunen bat edo besterekin agertzen zen tabernatik, txorizoa edota salda beroa hartzera. Gerora, Juanito tabernak babesten zuen futbol-sala taldeko atezaina izan zen Xabier, eta han izaten zen gainontzeko taldekideekin batera. Xabier, gainontzeko taldekideak baino zaharra goa zen eta izaten zuen nahiko lan haiek kontrolatzen. Igande goizetan joaten zen bere baloiarekin partida jokatzera, eta sarritan, taldekideak bezperan parranda egin eta oraindik ohean izaten ziren. Mi-



Juanito eta Miren tabernaren atarian, berriki Aiurriako egindako elkarriketan.

renek gogoan du, nola Xabierrek joan behar izaten zuen etxez-etxe, banan-bana esnarazten, partida jokatu baten.

Juanitok akorduan du Urnietako futbol zelaia inauguratu berrian nola jokatu zuten ezkonduak ezkongabeen aurko partida bat. Orduan ere, Xabierrek era-

mandakoa zen baloia. Halako batean, jokalari eztabaidagarri batetan hartutako erabakiarekin ez zen ados Xabier, eta bere baloia hartu eta etxera alde egin zuen. Ondorioz, partida bertan behera geratu zen.

"Xabierrentzako gure taberna eszena-

Jubilatu bitartean, Joanito tabernaria izateaz gain, taxista ere izan zen. Batez ere, ospitalera eta inguruko herrietara jendea eramanez pasa zituen urteak

toki bat bezala zen, hainbatetan, mahai baten gainera igo eta botako zigun diskurtsoa, edo bertsoren kantatu, edota txistaren bat kontatu, edo dantzatu, edo zer, umore handia jartzen zuen hemen eta gu barrez lehertzen egoten ginen" dio Juanitok.

Xabierrek, osasun arazoengatik gutxi jan zezakeen, baina jaten asko disfrutatzeko eta gustatzen zitzaion denetik probatzea, soilik hori bazen ere egin zezakeena, probatzea. "Segituan betetzen zen", erantsi digu Mirenek.

MATTIN MUJIKA

Pelotariak ere bazuten joera tabernara hurbiltzeko. 1993 urteko apirilaren 28an hil zen, 27 urte besterik ez zituela **Mattin Mujika** erremontista handia. Mattin eta bere lagunak sarritan izaten ziren Juanito tabernan. Bera babesten zuen zaletu-taldea ere tabernan elkartzen zen. Xabier Letek ere seme baten moduan tratatzen zuen Mattin.

Juanitok gogoan du Mattinek 1989an Prat-ekin bikotea osatuz binakako txapela irabazitakoan bi bazkari antolatu zirela, bat berak Zaldundegin antolatu zena, eta bigarrena, Marizulon egin zena. Bietan jangela bete egin zen.

SANMIELAK

San Juan plazaren ondoan egonik, Urnietako festak iritsitakoan eromena izaten zen tabernan: "Pertsona bat kanpoan jarri behar izaten genuen, bezeroek ateratako baso eta platerak biltzen, bestela batere gabe geratuko ginelako".

XX. MENDEAREN AZKEN HAMARKADETAKO GERTAERA UGARI ZUZENEAN BIZI IZAN ZITUZTEN



Duela hogeita hamar urte Urnietako futbol zelai berrian ezkonduak ezkongabeen aurka jokaturako partidan. Urnietar ezagun askorekin batera hainbat andoaindar ageri dira argazkian.

Iaz erretiratu zen **Egan** taldea Urnietan izaten zen urtero Sanmiel jaien azken egunean, Errosarioko Amabirjinaren igandean, eta hauek ere ez zuten hutsik egiten Juanito tabernan. Mirenek gogoan du taldekide batek urtero tripakiak eskatzen zituela.

Txantxillo Donostiako kale-eskaleak ere Juanito tabernan izaten zen urtero Sanmiel jaietan. Taberna barruko bazter batean jartzen zen, lurreraino iristen ziztaion gabardina jantzita, xilofonoa jotzen, poltsaz inguratura. Ez zuen inongo harremanik tabernariekin, baimenik ere ez zuen eskatzen bertan jartzeko.

TAXISTA

40 urte zituenetik jubilatutako bitartean, Juanito tabernaria izateaz gain, taxista izan zen ere. Batez ere, ospitalera eta inguruko herrietara jendea eramanez pasa zituen urteak, baina estatu osora iritsi izan zen bere autoarekin. Halare

Juanito taberna urte luzez areto futbol txapelketako talde baten babesle izan zen; Juanitok talde horretan bertan jokatu zuen

badu inoiz ahaztuko ez duen zerbitzu bat. Moskura egindakoa hain zuzen ere. “Juan Antonio Barea urnietarra, tarteka Donostiako bere lantegira eramaten nuen, eta urtero-urtero uda-partean egun-pasa joaten ginen Zaragozako Calatayud herrira, han zuen bere lagun bati bisita egiteko aitzakiarekin. Urtero aipatzen zidan egunen batean Moskura joan behar genuela. Dirudieenez, ezkondu zenean bere emazteari hara joateko promesa egina zion, eta alargunduta egonagatik agindutakoa bete egin nahi zuen. Halako insisten-tziaren aurrean, han ibili nintzen, kamioilari enpresetan eta abar xehetasu-

nak jakin nahian, zer prezio kobratu ere ez nekielako. Miloi erdia (garaiko pezetetan) esan nion, eta berak baiezkoa eman zidan. Horrela, 1994ko martxoan abiatu ginen goizeko 06:00tan Urnietatik eta Frantziako iparraldean dagoen Peronne herrian lo egin genuen. Hurrengo egunean Poloniaraino iritsi ginen, Poznan hiriraino. Hirugarren egunean, jada Errusian, Smolensk herrian pasa genuen gaua, eta jarraian iritsi ginen Moskura. Iritsi orduko gure hotela non zen ez genekienez, leku desegokian aparkatu eta polizien komisaldetan bukatu genuen. Espainiako enbajadorekin hitz egin genuen eta berehala ginen berriro kalean. Ondorengo egun pare batean bertan izan ginen, otordu bikainak egin genituen, baina Juan Antoniok ez zeukan inongo interesik ez bisitatzeke ezta ezagutzeko ere, eta hotelean sartuta egotekotan Urnietara bueltatzea proposatu nion.

Taxista modura badu Juanitok inoiz ahaztuko ez duen zerbitzu bat: Moskura egindako bidaia 1994an

Berak baiezkoa eman eta segituan ginen bueltako bidaian. Berari ezer aipatu gabe itzuleran Varsovia sartu nintzen, behin haraino joanda zerbait eza-gutzeko asmoarekin.

IDI DEMAK

Urnietan ohikoak ziren Sanmielen ondoren Egape ikastolak antolatzen zituen idi probak. Ikastolak antolatzeari utzitakoa, Juanito eta bere lagun batek hartu zuten antolakuntzaren ardura, eta hiru urtez jarraian lan horretan jardun ziren. Ikusle ugari bertaratzen bazen ere, ez zuten babes handirik jasotzen eta bere horretan uztea erabaki zuten.



Egape ikastolako jolastokian, areto futbol txapelketako argazkia.



Juanito eta bere lagun batzuk Jokin Mujika eta Marino Lejarreta txirrindulariekin.

“Orain zu” Foru Aldundiaren kanpaina Urnietan



Urnietan izan da “Orain zu” karpa bisitatu duten lehen herria.

Gipuzkoako Foru Aldundiko “Orain zu” karpa San Juan Plazan ipini zuten joan zen asteartean, Urnietako herritarrei aurrekontu parte hartzaileetan parte hartzera gonbidatuz.

Eskuorriak banatu zituzten egunean zehar San Juan plazan, nahi zuenak ekarpenak idazteko. Bertan herritarrek jarri ahal izan zuten bere iritziz zeintzuk diren 2018ko aurrekonturako gustuko proposamenak, zein den Gipuzkoaren etorkizuneko erronkarik nagusia, eta zein esparruetan nahiko lukeen Aldundiak inbertsioak egitea.

Imanol Lasa Foru Aldundiko Gobernantza eta Komunikazio diputatuak eta **Mikel Pagola** Urnietako alkateak

aurrekontu irekien prozesua aurkeztu zuten. Eta aldi berean, Urnietako zenbait elkarreetako ordezkariekin biltzeak ziren udaletxean.

Urnietan izan da “Orain zu” karpa bisitatu duten lehen herria. Ondorengo asteetan beste 37 udalerritara iritsiko da; tartean, Andoainera, maiatzaren 15ean.

Karpa herrietan soilik egun batez egongo bada ere, ekarpenak egiteko beste bi bide jarri dituzte gipuzkoarren eskura. Batetik gipuzkoa.eus/partaidetza webgunea eta bestetik Foru Aldundiaren erregistroa ala tokian tokiko erregistro publikoak.

Datorren ekainaren 30era bitarte iritzia bidaltzeko aukera dago.

Urnietar Prestu 2017



Iaz, “Urnietar Prestu” izendatu zuten Jokin Lizeaga. Eta Martin aitak, Juan Igua-
ranekin batera, izendapen berdina jaso zuten 2012ko Sanmieletan.

Aurten ere Sanmieletan Iñistor jaia ospatuko da, zehazki, urriaren 1ean. Jaiaren barruan, urtero bezala, herritar bat omenduko da “Urnietar Prestu” izendatuz. Besteak beste, orain arte Iñistorrak antolatzen duen ospakizunean honako hauek omendu dituzte: Jokin Lizeaga mendi lasterkaria, Iñaki Aranzadi apaiza, Edu Muruamendiaraz dantzaria,

Juxto Egaña euskaltzalea, etab. 2017ko ediziorako Iñistorrak bere proposamenaz gain herritarrei ideiak emateko aukera luzatu nahi die ohar honen bidez. Mezu edota telefono dei bitartez helarazi daitezke proposamenak 656 78 25 21 telefonoz zenbakira. Maiatzaren 24a bitarte jaso ahal izango dira urnietarren proposamenak.

Liburuaren eguna Iñistorra elkartaren eskutik

Liburuak eta musika joan zen larunbatean



Jende ugari hurbildu zen Sarobera, larunbat arratsaldeko kontzertura.

Urnietan, pasa zen larunbatean Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenak gauzatu ziren **Iñistorra** elkartaren eskutik, Udalaren laguntzaz. Eguerdian, plazan hainbat euskal editorialen liburuak mahai bat ipini zuten. Bertan, herritarrek liburuak erosteko aukera izan zuten. Baita maiatzaren 26ko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldira sarrerak ere.

Arratsaldean, Lappa, Lear eta Bi zaldi taldeek kontzertua eskaini zuten Saroben. Sarrera polita jaso zuten aretoak, eta kontzertuak bereziki herriko gazteak erakarri zituen.

Lappa taldea izan zen lehenengoa taularatzen. **Eneko Zulaika**, **Eneko Bustillo** eta **Endika Garciak** herritarrek osatutako taldeak indar handiko ordu erdia eskaini zuten. Atsedenaldira labor baten ondoren, Lear taldeak hartu zuten oholta, **Andrea** eta **Irene Legarra** ahizpak eta **Maialen Mirandak** osatutako taldeak ordu erdiz entzuleen belarriak goxatu zituzten beren melodia atseginekin.

Donostiatik etorri zen emanaldia itxi zuen **Bi zaldi** taldea. Hiru ordu laurdeneko saioan Sarobeko publikoa poltsikoratzen jakin zuten, eta txalo za-



Bi Zaldi taldeak itxi zuen musika emanaldia. Maila handiko emanaldia eskaini zuten.



Liburuak eta pailazoen emanaldirako sarrerak saldu zituzten San Juan plazan.

parrada handi batekin agurtu zuten **Gartxot Unsain** eta **Beñat Antxustegiren** saio bikaina.

PAILAZOEN EMANALDIA

Iñistorrak antolatuta, datorren maiatzaren 26an, arratsaldeko 17:30etan, Egape ikastolako pilotalekuan, Pirritx, Porrotx eta

Marimotots pailazoen emanaldia eskainiko da Gazte Jaiei egitarauaren barruan. Emanaldi horretarako sarrerak dagoeneko salgai daude 7 euroko prezioan. Urnietan, Xauxar tabernan eta Bikain okindegian (Sanjoan plaza). Andoainen, Ernaitza liburutegian eta Aiurrian.

Ekainaren 2an Oianumen; izena emateko epea zabalik dago

Egape ikastolaren afaria

Egape ikastolak ekainaren 2ra-ko 50. urteurrenako afaria antolatu du, Oianume jatetxean. 20:30ean hasiko da eta menua 35 eurokoa izango da: Urdaiazpikoa, foie, ganak, eguneko arrain freskoa, azpizuna,

tarta eta izozkoa, kafea eta edariak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez afarira hurbiltzen direnak hiru taldetan banatuko dituzte: Langileak, gurasoak eta ikasle ohiak. Maiatzaren 17a baino lehen ordaindu behar da,

kontu korrontean dirua ipiniz. Ordaintzerakoan izen abizenak eta taldea aipatu behar da, hots, gurasoa, ikaslea edota langilea.

Kontu korrontea:
ES17 30350148 1614 8003 2576

2017, maiatza

Gora Santakrutzak!



Pozik eta hunkituta, jaien hasierako pregoian

TXINDOKI TABERNAREN ARDURA HAMARKADA LUZEZ ERAMAN DUEN FAMILIARI OMENALDIA EGIN ZION JAI BATZORDEAK, AURTENGO PREGOIA EMATEKO AUKERA ESKAINIZ. POZEZ ETA HUNKITURIK HARTU ANTOLATZAILEEK EMANDAKO AUKERA.



Txindoki tabernako atzoko eta gaurko kideak omendu zituzten jaien hasierako pregoian.



Zumeatarraren danborrada, txaranga eta Erraldoi eta buruhandien kalejira jaien hasierako ekitaldian.



Zumeatarraren danborradan irteten den emakumezko taldea, ostiral arratsaldean Zubiaurre etxe ondoan.



Ostiralean, bazkalostean, haurren pregoia eta txokolate jatea antolatu zuten Zumea plazan.

Hiru talderen arteko giza proba ikusgarria

ANDOAIN ETA DONOSTIAKO GROS ETA INTXAURRONDO TALDEAK LEHIA BIZIAN IZAN ZIREN KALEBERRIAN, JAIETAKO LEHEN EGUNEAN. IKUSMIN HANDIA PIZTU ZUEN DEIALDIAK, ETA ANDOAINDARREK BEREZIKI ZALETUEN ANIMO UGARI JASO ZUTEN.



Giza proba:	
1. Intxaurrondo	33 plaza
2. Andoain	31 plaza
3. Gros	30 plaza





Ekitaldiz beteriko eguna, larunbatekoa

ARRANTZA LEHIAKETA, ERREKA JAITSIERA, KANTUJIRA, AUZO BAZKARIA, DANBORRADA EDOTA BEZPERATIK GAUA LUZATU ZUTEN GAUTXORIEN ARGAZKIAREKIN OSATU ZEN LARUNBATEKO EGITARAUA.



Gautxori guztiak ez, baina gaupasaz zeuden hainbat lagun Espigoian bildu ziren goizeko 08:00etan.



Gazte mailako arrantza lehiaketako partaideak Ontza elkarteko antolatzaileekin batera.



Olagaingo presa txikia ganditu eta gero, herrigunera iritsi ziren erreka jaitsierako partaideak.



Kantujirak luxuzko kolaboratzaileak izan ditu aurtten. Besteak beste Udal musika eskolako hainbat kide.



La Jodera taldeak auzo bazkariaren ondoren giro ederra ipinin zuen Kale Nagusian.



Baby Band taldekoak, maila handiko musikariekin, giro ederra sortuz kalez kale ibili ziren.



Koadrila eta familia ugari hurbildu ziren larunbat eguerdian Kale Nagusiko bazkarira.



Peña Santa Krutz elkarteko danborrada larunbat gauean irten zen. Irudian, Goia, Amutxastegi eta Alcala.

Bakailao onena

**BATZOKIKOEN NAGUSITASUNA HAUTSI DU AURTEN
ANDOAINDARRA ELKARTEAK. POZARREN JASO ZUTEN SARIA.**



Antonio Tena (Karrika), Antonio Nogales eta Eduardo Fernandez irabazleak (Andoaindarra) eta Benito Gaztañaga eta Bittor Uria (Peña Santa Krutz).

Bakailao txapelketa:
1. Andoaindarra
2. Karrika
3. Peña Santa Krutz



Luisa Aguado eta Nika Murillo (Kotol).



Maite Etxeberria eta Mikel Telleria (Irunberri).



Iñaki Irulegi eta Andoni Guedejo (Batzokia).



Manuel Perez eta Victor Venero (Zumeatarra).



Antonio Caballero eta Ignacio Gomez (Extremeño).



Joao eta Iker Hernandez (Ontza).

Tradizioa eta dantza

**EUSKAL DANTZAK, ERRALDOI ETA BURUHANDIAK...
JAIETAKO EZINBESTEKO TRADIZIOAK DIRA.**



Urki dantza taldeko gaztetxoek saioa Ondarretan eskaini behar izan zuten, euriagatik.



Sardinerak dantza eskaini zuten gaztetxoek, grazia handiarekin.



Emanaldiari amaiera emateko denak eskutik helduta kalejira egin zuten.



Dultzaineroen doinupean dantza egin zuten Buruhandiek, jaien hasierako ekitaldian.

Musika doinuak jaietan

KLASIKOA, KORALA, EUSKAL KUTSUKOA EDO ROCKEROA...
GUZTIAK ERE JAIETAKO OSAGAI EGOKIAK DIRA.



Udal Musika Banda eta Mugaz gazte taldea elkarrekin joz aritu ziren Ondarreta ikastetxean.



Txistulariak eta Alberto Agirre abesbatzako kideak Santa Krutz elizako jaietako emanaldian.



Trikitilari eskolako kideak izan ziren aurtengo emanaldiko gonbidatuetoakoak.



Natural Project taldeak herriko beste hainbat talderekin batera emanaldia eskaini zuen Bekoplazan.

Kros herrikoia

SAILKAPEN OSOA: KIROLPROBAK.COM
ARGAZKIAK, BIDEOA: AIURRI.EUS



Eñaut Egaña, Ekiñe Otaño eta Jone Larrañaga.



Ander Lopez, Igor Lizasoain eta Urtzi Azpiroz.



Rosa Luena eta Roger Westney.



Iñosken Mujika eta Unai Ugartemendia.



Haur krosak gorakada nabarmena izaten ari da, urtez urte.

Maiatzaren lehena ekitaldiz beterikoa

SAGARDO LEHIAKETA ETA TALO JATEA ASTELEHEN EGUERDIAN EGIN ZIREN, IGANDE ARRATSALDEKO EURIA ETA HAIZETEA DELA ETA. PARTE HARTZE HANDIA IZAN ZEN KIROL JARDUERA EZBERDINETAN ETA EGITARAUKO BESTE EKITALDIETAN.



Infantilak:
1. Dani Fursenko (Andoaingo)
2. Aratz Guridi (AMPO)
1. Laiene Pikabea (Andoaingo)
2. Aritz Avestaran (AMPO)



Andoaingo.eus webgunean bizikleta festako eta txirrindularitza lasterketako argazkiak ikusgai daude.



Sagardo lehiaketa:
1. Urdaira (Astigarraga)
2. Sarasola (Asteasu)
3. Gaztañaga (Andoain)



Alaitz Bikuña taloa prestatzen, osagaiekin betetzeko ondoren.



Marsel magoak haurren eta helduen arreta bereganatzea lortu zuen.



Basataloek lan handia izan zuten igande eguerdian, Zumea plazan.



Parte hartze handia izan zen Herri Danborradan.



Txalaparta ibiltaria eta bertsolariak elkarrekin ibili ziren igande arratsaldean.

Koadrillen eguna

EHUNKA LAGUN BILDU ZIREN BAZKARIAN, ETA ONDORENGO OSPAKIZUNETAN. EURIAK OZTOPATUKO EZ DUEN EGUNA DA.



Ehunka lagun hurbildu zen koadrilen eguneko bazkarira.



Eguerdiko jolasetan irabazle izan ziren koadrilak, taldeko argazkian.



Koadrilen argazkiak ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



DJ Bull izan zen bazkalosteko animatzailea, koadrillen arteko kalejiran.

Santa Krutz eguna

DESAFIO ETA GUZTI IRITSIKO DIRA JAIK. ANDOAINGOEK DONOSTIALDEKO BI LEHIAKIDE IZANGO DITUZTE.



Eskopeteroak eta txistulariak jaitsieraren aurretik ateratako argazkian.



Agintariak parean dituztela ezpata dantza eskaintzen diete Urki dantza taldeko kideek.



Tradizio handikoak dira ezpata dantza eta brokel dantza, Santa Krutz egunean.



Kale Nagusian behera, Ikurriñaren jaitsiera. Txistularien atzetik, Udal agintariak.

Santa Krutz eguna Azkortekeko ermitan

URNIETAN ERE ASPALDIKOA DA SANTA KRUTZ OSPATZEKO EGUNA. HILAREN HIRUAN URNIETARREK EGIN ZUTEN OSPAKIZUNA, EUSKAL KUTSUKOA ERABAT. DATORREN ASTEBURUAN LASARTEARREN TXANDA IZANGO DA.



Santa Krutz egunari debozio berezia dioten herritarak.



Larrañaga eta Zabale trikitilarien doinuekin animatu ziren bakarrak, arin-arin eta fandangoa dantzatzen.




Josetxo Urutia harrijasotzaile leitzarra, lanean.



Manolo eta Peio Cañamares anaiek aizkorarekin eta motozerrarekin erakustaldia eskaini zuten.

**Santa Krutz jaietako albisteak,
argazkiak eta bideoak
www.aiurri.eus webgunean
Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**



AIURRI

JAIEN
JARRAIPEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN



URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN ESKUTIK, MIKEL AGIRREGOMEZKORTAREN ZUZENDARITZAPEAN

Pentagrama-Enea antzezlan, igande honetan Saroben

1996. urtean, Antton Jauregi Egape ikastolako irakasleak musika irakasteko prozesua azaltzeko ipuin bat asmatu zuen. Hori oinarri hartuta, antzezlan moldatu eta igande honetan Epagen taularatuko du

Urnietako Antzerki Tailerrak, arratsaldeko 17:30ean hasita. Sarre-rak salgai daude, eta egunean bertan leihatilan ere eskuragarri izango dira. Mikel Agirregomezkorta zuzendariarekin hitz egin dugu.

Nolatan sortu zen ipuina antzerkira moldatzeko ideia?

Antton Jauregi eta biok ikusi genuen ipuinak antzerkian jokoa eman zezakeela. Orduan, **Aizpea Goenaga**rekin harremanetan jarri ginen eta berak egin zuen gidoia. Garai hartan ez zegoen antzerki tailerrik, baina gazte talde batekin ahalegina egin genuen Pentagrama-Enea antzezteko. Antzerkia egitera ez ginen iritsi, baina erakustalditxo bat egitea lortu genuen. Hori hala, niri buruan geratu zitzaidan antzerki hura noizbait egiteko gogoia. Orain, antzerki tailerra sortuta, ahaleginean jarraitu dugu eta aurten egiteke genuen hori aurrera eraman dugu.

Zein da kontatzen den istorioa?

Herri batean oinarritutako istorioa da. Herriko bikote batek herriari bizia emateko etxe bat sortzea erabakitzen du: Pentagrama-Enea etxea. Hala, kanpotik herrira oportetara etorritakoen laguntzaz, pixkanaka etxea eraikitzen joango dira.

Istorioak musikatik asko izango du, baina musikal bat dela esan daiteke?

Baiez esango nuke, pertsonaia bakoitzak bere kanta duelako.

Zer moduz doaz egun hauetako entseguak?

Orain buru belarri sartuta gaude, iritsi ezinik. Zezenak urtero harrapatzen nau, aurten bereziki. Astean behin soilik geratzen gara eta, azken finean, lau entseguetan osatu behar izan dugu dena. Izan



Ezker eskuin, igandean antzeztuko duten kideak: Xabier Odriozola, Isidro Salinas, Gentzane Unanue, Mikel Agirregomezkorta zuzendaria eta Kontxi Gonzalez. Eserita, Esther Modia, Pili Brandariz, Julio Nogales, Juan-kar Erasun eta Lupe Herrero.

ere, urtean zehar tailerrean bestelako gaitasun batzuk lantzen ibili gara eta amaieran emanaldia prestatzeari ekin diogu. Dena den, orain egunero ibili gara entseatzeko eta igandera arte horretan jarraituko dugu.

Zer izan da prozesu honetan erronkarik garrantziena?

Bi erronka nagusi eduki ditut antzerki honekin; batetik, antzerki euskalduna

dela eta tailerrak eleanitzak izan ohi direla. Bestetik, antzerkiko pertsonaiak 8 diren bitartean, tailerrean kide gehiago edo gutxiago egon daitezkeela. Aurten ere kopuruak buruhausteak eman dizkit. Arazoak izan ditugun arren, moldatu gara eta emanaldia emateko prest gaude.

Metodologia baten oinarritutako antzerkia denez, ikusleak ikasi egingo al du?

Ipuina oso ezaguna da, bereziki Egape

Maiatzak 7, igandea.

17:30. Sarobe. Sarrera: 3 €.

Sarrerak salgai Sarobeko bulegoan, eta txarteldegian emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago

ikastolan. Honenbestez, oso gertukoa egingo zaie. Hala ere, bakoitzak pertsonaiekiko duen ikuspegia aldatu daiteke, Anttonek egiten duenetik antzerkira saltoa egon daitekeelako, baina hori ere polita da.

Haurrei zuzendutako antzerkia al da?

Berezi haurrei, antzerki infantila delako, baino ez da beraientzat bakarrik. Emanaldi hau pertsona helduentzat ere izan daiteke; izan ere, antzerki infantila kalitatekoa bada, helduek ere gustura ikusi dezakete. Gu behintzat saiatuko gara emankizun polita eta ona eskaintzen.

Urnietatik kanpo antzezlan eskaintzeko asmorik ba al duzue?

Gustatuko litzaiguke gainontzeko herrietan erakustea. Eskoletan erakustea bikaina litzateke. Egaperen hamabostaldi kulturean sartuko dugu, eta horrez gain, urriaren 20an Lezon ere.

Zein mezu esan nahiko zenieke herritarrei?

Uste dut bertaratzen direnek ondo pasako dutela, umorea osagai nagusia delako. Beraz, etor daitezela eta gozatu dezatela.



Antton Jauregiaren irakasteko metodoan oinarriturik dago antzezlan.



Musika da antzezlanaren osagai nagusia.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Ustelkeriak badu izenik

Ustelkeria ez da gaurkoa. Historian zehar ustelkeria alderdi politiko eta erakunde publikoetan betidanik eman da. Ustelkeria ez da gaurkoa. Estatu mailako agintariei dagokionez, ustelkeria hori areagotu egin da eta erakunde osora zabaldu da minbizia bailitzan. Azken asteotan hizpide izan da PP alderdiaren inguruan gertatutakoa. Dirutza eskuratu dute alderdi horretako agintariek eta harri-dura eta amorrua sortu da han hemengo biztanleen artean. Badirudi 800 baino gehiago direla alderdi popularreko inputatuak. Horrez gain, aipatu ustelkeria horien gainetik zenbait fiskal, epaile eta ministro ere zipriztindu dira, ustezko kasu horietan batzuk babesten saiatu direlako.

Espero zitekeenez, erreakzio asko izan dira. Denak ez neurri berdinekoak,hots, batzuk sutuagoak izan dira. Unidos Podemos koalizioak autobus bat antolatu du, Tramabus izenarekin bataiatu dutena, eta ustelkeria kasuak izan diren lekuetatik igaro da ustelkeria kasu horietan guztietan zerikusia izan dezaketen pertsonen argazkiekin. Kritikak jaso dituzte Tramabusa antolatzeagatik, baina nire irudiko ekimen hori alderdi berri honen izaeran kokatu behar da. Unidos Podemosek, eta bere jatorria kontutan harturik, herri mugimenduekin lotura du eta bere nortasun agiri hori ez du baztertu nahi. Podemosek orain bi mailatan lan egin duela: erakundeetan eta herri mugimenduekin. Ez da bion arteko oreka lortzea oso erraza izango, baina hortik joan beharko luke alderdi guztien lana hainbeste aipatzen den politikarekiko "desafekzio" edo hoztasun hori ekiditzeko.

Espainiako Kongresuan tamaina honetako ustelkeriaren aurrean erre-akzioak desberdinak izan dira. Hala nola, PSOEk eta Ciudadanos alderdiak Fiskala, Justizia ministroa eta Barne ministroa kongresuan ager daitetzela eskatu dute, jakinda ere bakoitzak bere iritzia emango duela, eta bakoitza bere bidetik joango dela.

Horrelako agerraldietan, eta azken boladan, saltsa pittin bat jartzen dio-na Rufian ERCKo diputatu gaztea da, erdi txantxetan bada ere egia handiak esaten dituenak.

Podemosek dioenarekin bat nator: neurri honetako ustelkeria kontutan hartuta ezin daiteke betiko bidea jorratu, bide berriak asmatu behar dira. Eta horra hor Podemosen ekimena: kongresuak gaibakarreko eztabaida egin dezala. Baina bai zera!!! Gai horiek denak erabakitzen diren Kongresuko mahaia PP, PSOE eta Ciu-

"Bakearen artisauen asmo eta helburua ETA-ren armagabetzea gauzatzea izan da eta da, Espainiako eta Frantziako Gobernuek bide horretan ez zutela urratsik emango ikusten baitzuten"

dadanosen bozkekin atzera bota du Podemosen proposamena.

Eta, horrela, betiko prozesioa egin dute, eta ezer gertatu ez balitz bezala: bakoitza bere bidetik. Ez da lehenengo aldia Unidos Podemosen aurka agertzen direla. Duela gutxi, eta hortaz idazteko gogoia ere badut, Eutanasia eta hiltzen laguntzeari dagokion proposamena Unidos Podemosek Kongresuan aurkeztu zuenean, hirurak aurka agertu ziren. Ziur nago, PSOEk mendekuz egin zuela Podemosek gaitzesten zuten. Egun hauetan ere, hizpide da EAJ, dirudenez Estatuko aurrekontuak ahalbidetuko dizkiolako PPri. Kritikak ez zaizkio falta, eta euskal sindikatuak ere maiatzaren 1a aprobetxatu dute gaitzespen hori errepikatzeko.

ZENTSURA MOZIOA

Esaldi potoloa da, eta halere Unidos Podemosekoak horren beharra planteatzen ausartu dira. Ez da ohikoa baina ustelkeriaren luze zabalera kontutan harturik, egokia iritzio diote ustelduta dagoen alderdia gobernutik kentzea. Alderdi klasikoen alde-tik, Ciudadanos barne (ez baitakigu berriatik zer duen) ezezkoa jaso du eta txantxa ere egin diote zirkoa dela eta aurpegiaratu. Jakina, nik neuk ere zalantza ditut planteatzeko modua egokiena izan den al ez. Hor ikusten denez, beraien arteko harremanei dagokionean alegia, iraganak eragina duela eta Unidos Podemosek ere ez dituela gauzak ongi egin.

Zentsura mozioa politikan mekanismo bat da, ez dut gaizki ikusten. Gertatzen dena da, PSOE ere erabat zati-tuta dagoela. Frantziar Alderdi Sozialistak jaso duen jipoia jasaten ez badu, gaitzerdi.

Dena den, badirudi Unidos Podemos giza mugimendu eta sindikalekin harremanetan jarri dela lehen aipatutako bi bide horiek uztartu nahian. Ikusi behar.

Espainian eta Euskal Herrian Bil-du eta Ahal Duguren antzeko alderdiak beharrezkoak dira gizartearen bareratasun eta armonia faltsu batean eror ez dadin.

ALDARRIKAPEN KUTSUKO ERREKA JAITSIERA



POSTONTZIA ANDOAINGO EGUZKI

Joan zen asteburuan, urtero bezala, erreka jaitsiera antolatu zuen Eguzkik, Leitzarar haranak eta Leitzarn ibaiaren arroak egun dituen arazoan aldarria egiteko. Jaitsiera, Andoaingo Santa Krutz jaien barruan ospatzen den, ur hotzarekin baina oso giro alaiean igaro zen, zeinean bereziki gazteek parte hartu zuten.

LEITZARAN NATUR PARKEA

Leitzarar Natur Parkearen izendapena, Leitzarango autobaien (Andoain-lurtzun autobidea) eraikuntza gatazkatsuen inguruan emandako elkar-riketa eta negoziaketetan gauzatzen hasi zen, 1992an lortuta akordioarekin.

Ordutik hona, Leitzarar ibaia 1995ean izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak Biotopo Babestu, benetan izan behar zuenaren suzedaneo bat besterik ez dena, EBeko Natura 2000 Sarearen barruan dago, zeinaren ondorioz 2012an KBG (Kontserbazio Bereziko Gunea) izendatu zen, biak ala biak egungo babes mailaren adierazle nagusi gisa.

Praktikan, egunerokotasunean, babes hori ez dago hain argi edo ez da hain erreala. Izan ere, lehen unetik hasi ziren babeserako oinarritzko gaiak ez betetzen edo huts egiten. Adibidez, Biotopo izendapenetik erator-tzen da:

- Egungo habitat edo/eta bioaniztasuna mantentzen edo hobetzeko helburuak zehazteko eta aurrera eramaten lagunduko duen urtez-urteko plangintza. Ez dago.
- Kudeaketa egin ahal izateko antu-

lakunde bat, patronatua deitu ohi zaiona, ez dago.

- Leitzarango bide nagusia ibilgailuei iteko bezalako neurri zehatzak, zeina Biotopo izendapenean bertan datorren (gogora dezagun, 1995eko da), ez da indarrean jarri 2011 arte. Indarrean 16 urte beranduago! KBG izendapenari dagokionean berriz, honek lau urterako plangintza eta aurrekontu batez osatuta egon beharko luke baina ez da horrela. Ez dago ez plangintza ez aurrekontu zehatzik Leitzarar KBGrako, zeina nahitaezkoa den.

Egia izanik ere aurrerapauso txiki batzuk eman direla, Usabelartza zohikaztegiaren hobekuntza, Inturiako presaren desagertzea (orain Ollokikoaren ari da Aldundia), arrainentzako errunlekuak sortzea... Egun Leitzarar KBG-an ez dago ez plangintzarik ezta ikuspegi orokorrik ere.

ISURKETAK EZ DIRA ETETEN

Baina badu Leitzaranean Andoaingo udalerrian beste arazo bat: ur beltzen isurketak. Egun, ur beltzen isurketa Leitzarar ibaira ez da eten, 2013a ezke-ro oria erdiko araztegia martxan bada-go ere. Gainera horien ubideratzeak ez du datarik.

Leitzarar bezala, Errekabeltz edo Ziako erreka ere, Andoaindik igarotzen da eta Orian hiltzen da. Eta hartan bezala, ur beltzak Errekabeltzera isurtzen jarraitzen dugu, zeinak Andoaingo ur beltzen %40 inguru diren. Eta hala jarraitu beharko dute denbora luzez, Errekabeltz-ziako erreka saneamendua ez baita aurrera eramango 2021 arte. Data hori ere zalantzan jartzeko modukoa da, Eusko

Jaurlaritzaren aurtengo aurrekontue-tan EAE osoan ur zikinak biltzeko eta arazteko 12,5 milioi euro baino ez ditu ipini Jaurlaritzak, eta diru kopuru horrekin ezin zaie inolaz ere aurre egin hasi alor honetan bete gabe dituen konpromisoei. Are gehiago, aurrekontu hauekin, atzerapenak pilatzen jarraituko dute, ezinbestez. Kontuan izan Jaurlaritzak alor honetan dituen zorrak, Gipuzkoan bakarrik, 50 milioi euro ingurukoak direla. Izan ere, Mijokoa ez da agindutako finantzazioaren zain dagoen proiektu bakarra.

Jaurlaritzak EAE osorako aurrekusi dituen 12,5 milioi horietatik 612.000 euro baino ez dira Gipuzkoako ibaien egoera hobetzera bideratuko. Zehatz-mehatz, 12.000 Pasai Donibanerako, 300.000 Villabonarako eta beste 300.000 Mallabirako. Mallabiko partida honi dagokionez, kontuan izan Mallabiko eta Ermuko ur zikinak Debatik ateratzeko lanek 9 milioi euroko aurrekontua dutela.

EAJren eta PSEren artean izenpetutako gobernu-akordioak beste gauza asko ez ezik honako hau ere badio: "Uraren hornikuntza, saneamendu eta arazketa azpiegitura hidrolikoak garatu eta eraikiko dira, dagoen plangintzaren arabera". Baina plangintzak epeak ere zehazten ditu, eta, ikusi dugun bezala, proiektu askotan epe horiek ez dira bete, eta, itxura guztien arabera, bete gabe jarraituko dute. Alde horretatik, Urkulluren gobernu berriaren eta Iñaki Arriola Ingurumen kontseilari berriaren aurrekontua ezin etsigarriagoa da. Gauzak izugarri aldatu ezean, garbi dago gobernu-konpromiso hori ez dela beteko. Legegintzaldia hasi baino ez da egin.

ZANPATUZ TALDEKOEN IRTEERA

Joan zen igandean hogeit lagun Anbotora igotzeko asmoarekin abiatu ziren Anboto gailurra aldera, baina euriak bete-betean eman zien ongietorria magalera iritsi zirenerako, eta antolatzaileek Orisol mendira igotzea erabaki zuten. Izan ere, Anboto mendi harritsua da, arriskutsua euria egiten duenean, eta arrisku horiek saiheste aldera, Orisol mendia igotzea erabaki zuten, euri eta guzti. Argazkian, Urnietatik abiatu ziren mendizaleak.





KIROL ALBISTEAK

130 lagun hurbildu ziren joan zen ostiraleko hitzordura

Alex Txikon entzuteko Sarobe txiki geratu zen

Alex Txikon mendizaleak Nanga Parbat eta Everest gailurren inguruko emanaldia eskaini zuen pasa den ostiralean Saroben, eta arte eskenikoen gunea bete egin zen. 130 bat lagun elkartu ziren Lemoakoaren azalpenak entzuteko asmoz. Argazki, bideo eta testigantza, ia bi ordu luze iraun zuen alpinistaren emanaldiak. Nanga Parbatera egin dituen bi ahaleginak azaldu zituen aurrena bizkaitarrak, igoera zergatik izan zen posible 2016an, eta ez urtebete lehenago egin zuen ahaleginean.

Argazki eta bideo ikusgarriez gozatu zuten bertaratutakoek, batez ere ze gogorra izan daitekeen eguneroko bizitza 8.000 metrora dagoen oinarritzko kanpalekuan, eguraldia traketsa denean eguna joan, eta eguna etorri. Nanga Parbat gailurrera bidean jarri zituzten altuera kanpamenduetako xehetasunak eman zituen, Pakistango mendiztar hartako balentria hura nola gauzatu zuten jakiteko.

Azken txanpan orain hilabete



Jokin Lizeagak egin zituen aurkezpen lanak.

Eguneroko bizitza 8.000 metrora dagoen oinarritzko kanpalekuan zeinen gogorra izan daiteke ikus ahal izan zen bideoetan

bukatutzat eman zuen Everesteko neguko ahalegina azaldu zuen Txikonek. Ez zuten gailurra iritsi. Txikon bera 8.000 metroko langaraino igo zen, eta izan dituzten zailtasunen berri

eman zuen, batez ere haize bortitza eta zenbaitetan -50ko tenperatura. Everesteko espedizio-ko azalpenetan, irudiak baino hitza izan zuen emankor Txikonek, igoera ahaleginarekin dokumental bat ekoizten ari delako Donostiako Zinemaldian eskaintzeko asmoz, eta irudi one-
nak gorde behar zituelako. Jarduna bukatuta, hiruzpalau galdera erantzun zituen Txikonek, eta jendearen txalo zaparrada goxoa entzunez agurtu zen

Urnieta Balerdi Harategiak 25-24 galdu zuen igoerako play-offean

Sestaoren aurka galdu

Txanponak bi alde dituela, eta azkenean alde batera erori ohi da. Urnietak igoera fasean jokatu dituen bi partidatan garaipena-

ren eta porrotaren muga-mugan ibili da. Etxean lehen partida irabazi zuen azken minutuan. Sestaon gauza bera gertatu zen, bai-

na kasu honetan partida galdu zuena Urnieta izan zen. Play-offa, 3. partida: **Ereintza-Urnieta Maiatzak 6, larunbata. 17:00.**

FUTBOLA, SASKIBALOIA ETA PALA

FUTBOLA, ERREGIONAL MAILA

Asteburuko emaitzak:
Urnieta 4-1 Hernani
Euskalduna 2-4 EAS08
Datorren asteburuan:
Sanpedrotarra-Urnieta
Euskalduna-Deusto
Saikapena:
1. Añorga 69
2. Trintxerpe 59
6. Euskalduna 40
10. Urnieta 34

SASKIBALOIA, GANBARA

*Senior mailak igoera jokatzeko aukerak ditu. Larunbatean Allurraldera!
ZATS 77-87 Ganbara SenM
Easo 64-41 Ganbara KadM
Partidak. Larunbatean, Allurralden:
09:00 Ganbara JubM-TAKE
19:15 Ganbara SenM-Mundarro
Saikapena, senior maila:
1. Azkune 44
2. Zarautz ZAST 44
7. Ganbara 36

ITURZAETA MEMORIALA

Larunbat honetan goizeko 10:00etan hasiera emango diote bikoteka jokatzaren txapelketa herrikoiari, **Toledo-Begiristain** eta **Aizpuru-Etxeberria** bikoteen artean. Denera, 38 bikote arituko dira lehian. Eguraldiaren menpe izango dira, nolanahi ere. Horregatik antolatzaileek partaideei Sorabillara bertaratzeko dei egin diete, eta unean bertan erabakiko dute partidei ekitea edota azteratzea.

Zanpatuz taldearen irteerak



Sallent de Gallego herria, uztailako irteeraren abiapuntua.

Ekaina eta uztailako irteerak ere antolatzen hasiak dira. Biak Pirinioetara izango dira. Ekainekoa egun bakarrekoa, ziur aski Linza eta Belagua aldeko gailur ezagunen batera izango da ekainaren 11n edo 18an. Uztailakoa ere bu-

ruan dauka dagoeneko **Joxerramon Jauregi** antolatzaileak. Litekeena da hilabeteko lehen asteburuan izatea, eta Sallent de Gallego herria abiapuntu izatea. Irteera biak baieztatzean jakinaraziko da informazio zehatza.

Infantil mailako eskubaloitaldeak B finalaren atarian

Bi taldeak finalaren atarian geratu dira, bereziki Leizaran taldea. Luzapenean galdu zuen partida. Orain eskualdeko bi taldeen artean jokatu da 3. postua.

Gipuzkoako Txapelketa
Infantil neskek, final aurrekoak:
Urnieta 19-24 Bera Bera
Pulpo 15-14 Leizaran A
Asteburuan, 3-4 postuak:
Urnieta-Leizaran A

Igerilariak Tarbes aldera

Buruntzaldea IKT taldeak jakinarazi duenez, asteburuan Nahia Jie, Paula Sevillano, Ainhoa Martin eta Leire

Martin Gipuzkoako Selektzioarekin Tarbes-eko "Les 27eme Nautiques de Tarbes" lehiaketan arituko dira.

Iturria Asturiaseko itzulian lehen postuetan ibili da



Urnietako txirrindulariak bigarren eta hirugarren etapatan aurrealdean ibili da, faboritoen artean. Igandean, esaterako, Nairo Quintanak irabazi zuen elurpean amaitu zen etapan eta Mikel Iturria 12. sailkatu zen. Maiatzaren

1ean, itzuliko azken lasterketan, urnietarra 10. sailkatu zen. Aurrealdean, beraz. Saikapen Orokorra:
1. Raul Alarcón (W52-Porto)
2. Nairo Quintana (Movistar)
3. Oscar Sevilla (Medellin)
13. Mikel Iturria (Euskadi-Murias)

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Buzkaria
MARMENI

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

Unistaketa
43800

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus

Publizitatea:

Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urniet).
Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 4TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

■ **Lady Macbeth**

Lar, 6. 19:30-22:00.

Ig, 7. 19:30.

Astl, 8. 19:30-22:00.

Haurrak: **El bebe jefazo**.

Mai, 6-7. 17:00.

■ **Hurrengo asteburuan:**

Un italiano en Noruega.

Maiatzak 13-15.

Literatura

Andoain

■ **111 Akademia Saria**, sari banaketa ekitaldia. Aurtengo irabazlea **Kirmen Uribe** izango da. **Audience** taldeak parte hartuko du ekitaldian.

19:30 Bastero.

Maiatzak 11, osteguna.

Ikuskizunak

Andoain, Bastero

■ **Pupu eta Lore: Haizearen herria**.

17:00 Auditorioa.

Maiatzak 13, larunbata.

Urniet

■ **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoen emanaldi bereirena, Egape ikastolako jolastoki estalian.

Sarrerak Xauxarren eta San Juan plazako Bikainen salgai.

17:00 Egape. 7 euro.

Maiatzak 26, ostirala.

Ospakizuna

Andoain

■ Maiatzeko azoka, Triana taldearen eskutik.

12:00 Meza elizan.

13:15 Agintariei harrera.

13:30 Taldeen emanaldiak.

17:00 Trianako taldeak.

17:30 Taldeen emanaldiak.

Maiatzak 6, larunbata.

Musika

Andoain

■ Kaskezur, Rukula eta Txost! taldeak zuzenean.

22:30 Gaztetxea. 6 euro.

Maiatzak 13, larunbata.

Urniet

■ **Musikazuzenean** webgunearen emanaldia, hainbat kantariaren parte hartzearekin.

19:00 Sarobe.

Maiatzak 21, igandea.

Antzerkia

Urniet

■ Urnietako Udal antzerki tailerra: **Pentagrama enea**.

17:30 Sarobe.

Maiatzak 7, igandea.

Andoain, Bastero

■ **El brujo, misterios del Quijote**

21:30 Auditorioa.

Maiatzak 5, ostirala.

■ **Francoren bilobari gutuna**.

21:30 Auditorioa.

Maiatzak 12, ostirala.

Deialdiak

Urniet

■ Udan begirale aritzeko deialdia. Info: Urniet.eus.

Epea: Maiatzak 5.

■ Egape ikastolaren 50. urteurreneko afaria.

Izena emateko epea:

Maiatzak 17, asteazkena.

Urteurreneko afaria:

20:30. Oianume jatetxea.

Ekainak 2, ostirala.

Andoain

■ Herri galdeketa egin ahal izateko sinadurak biltzen ari dira **Andoain Esan** ekimenekoak. Bulegoa:

Kaleberria, 1. Andoain.

11:00-13:00 / 17:00-20:00

Farmaziak

Andoain

■ **Pajares**.

Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).

Maiatzak 6-7.

Urniet

■ **Castilla-Larburu**.

Urniet, 7. Hernani.

Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).

Maiatzak 6-7.

Erakusketa

Andoain

■ **Joserra Elorza** “Minus” margo erakusketa.

Bastero, erakusketa gela.

Ekainaren 3ra arte zabalik.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Odile Igarizek 7 urte beteko ditu maiatzaren 7an. Ondo ospatzu zure eguna!

ANDOAIN


ZORIONAK



Elene Lizarribarrek 8 urte bete zituen apirilaren 30ean. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Peruk 3 urte bete zituen apirilaren 26an. Zorionak eta muxu bat potti, amoni, oxaba, Jaio eta Elurbiren partez.

ANDOAIN


ZORIONAK



Ane Amutxastegik maiatzaren 3an bete zituen urteak. Urteaskuan etxekoan partetik. Segi horrela.

ANDOAIN


ZORIONAK



Maiatzaren 8an urteak beteko dituzulako, muxu potolo-potolo pila batamatxito Lide, Ninbe eta Liher-en partez. Askoi maite zaitugu!

URNIETA

ZORIONAK



Jon Etxezarretak lau urte bete zituen maiatzaren 4an.

Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Naroa Irazu Romanek 8 urte beteko ditu maiatzaren 12an.

Zorionak printzesa, muxu handiak etxekoan partetik..

ANDOAIN

‘Zanpatuz ttiki’ eguna

Etxeko txikienekin txangoa egingo dute maiatzaren 13an.

Muliskora txikienak, eta **Ondd**ira handienak. Hitzordua goizeko 09.30an da Besabin. Handik mendira, eta txangoa bukatuta, hamaiketako goxoa haur eta guraso guztientzat. Eguraldi onarekin Muliskon bertan egingo da hamaiketako

koa. Eguraldia txarra bada, Xoxokako ikastolan.

IZENA EMATEKO EPEA MAIATZAREN 9AN

Xauxar eta Kantoi tabernetan, eta Ikasmin akademian egin ahal izango da. Familia-ko partaide bakoitzak 4 euro ordaindu beharko ditu.

Herriartekoa asteburuan



Arrate pilotalekuan emaitza ona lortzea garrantzia handikoa izango da.

Andoaingo Gazteleku Pilota Eskolako kideek asteburu honetan ekingo diote Herriartekoari. Xarma bereziko txapelketa da klubeko ki-deentzat, eta baita zaletuentzat ere. Arrate pilotalekuan jokatuko dituzte lehen partidak. Zorte on!

GIPUZKOAKO HERRIARTEKOA

Palaz, final laurdenak

Maiatzak 5, ostirala. 20:00

Maiatzak 5: Andoain-Errenteria.

Maiatzak 13-14: Errenteria-Andoain.

Eskuz, final hamaseirenak

Maiatzak 7, igandea. 10:30

Maiatzak 7: Andoain-Ataun.

Maiatzak 13-14: Ataun-Andoain.

Errealak Anoetako partida irabazi eta gubxira, taldeko hainbat jokalarik Andoaingo Santa Krutz jaietara hurbildu ziren. Bidelagun aparta izan zuten, Jon Gaztañaga andoaindarra. Haien presentziak, nola ez, herrikide askoren atentzioa piztu zuen. Hainbat eta hainbat izan ziren argazki edota sinadura eske hurbildutakoak. Argazkian Iñigo Martinez, Jon Gaztañaga eta Asier Illarramendi jokalaririk, txuri-urdi-nen zaletu gazte-gaztearekin.

